

MUGARRIAK
F MAILA

HAINBAT KOKALEKU

Egile eta data ezezagunak.

Deskribapena

Donostiako udalerria mugatzen duten hainbat mugarri daude. Mugarri horietako batzuek balio eta ezaugarri bereziak dituzte, haien babesak justifikatzen dutenak. Hauek dira:

- * Juanasoroko mugarriak (Zubieta).
400 metro ingurutan zabaltzen dira Bibillondo eta Andatza mendiaren artean. Mugarri horien artean tamaina handiko hareharrizko bat nabarmentzen zen, Orreagako Erret Kolegiataren seinale den makulua zuen grabatuta. 1989. urtean desagertu zen. Babesak mugarri hori ez ezik (agertzen bada edo aurkitzen bada), inguru horretan dauden gainerako mugarriak ere hartuko ditu.
- * Monjabasoko mugarriak (Igeldo).
S letrarekin grabatuta dauden hareharrizko mugarriak dira, eta Murgia mendiaren (Murgia gaina) eta Baldaberri baserriaren artean daude. Segur aski, Usurbilgo eta Donostiako udalerrien arteko antzinako muga bati dagozkio.
- * Buztanarriko eta Sansonarriko mugarriak.

Landarbason kokatuta daude, eta Hernaniko eta Donostiako udalerrien arteko muga adierazten dute.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen F babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
 - B. Elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Plan Berezi honen garapenean, mugarri horien kokalekua doitasunez identifikatzeko beharrezko proiektuak landuko dira.
 - * Gaur egungo kokalekuan mantendu ahal izango dira, edo horiek jartzeko edo gordetzeko egokia den beste kokaleku batera eraman ahal izango dira.